

DIRU ITURRIAK

Norbaitek enpresa bat eraiki behar duenean, proiektu hori aurrera eramateko diru sarrerak ondo kudeatzea behar beharrezkoa da. Gure kasuan adibidez, diru sarrerek ez badute kirol denda aurrera ateratzeko moduko etekinik ematen, ezinezkoa izango zaigu herriari zerbitzu hori eskaintzea. Gure helburua zerbitzu hori ematea bakarrik bada, nahikoa izango da diru sarrerak gastuak ordaintzeko adinakoak izatea, baina proiektu horren bidez gure soldata irabazi behar badugu, gure kasuan, materialak ordaintzeko adinako diru sarrerak ez dira nahikoa izango.

Hori ondo egiteko, lehenik eta behin gure arropa marka egiteko behar dugun materiala aukeratzeko, bere prezioaren eta kalitatearen balantze bat bilatu beharko da. Horri negoziazio prozesu deritzo.

Proiektua martxan jartzeko, lehenengo gastu ugari egin beharko ditugu. Lehenik eta behin lokala erosi beharko genuke, hori ez da merkea aterako, izan ere, leku egoki batean egotea komeni da jendeak ikusi dezan. Gainera azalera handi xamar bat edukitzea ere komenigarria da, mota denetariko kirol arropa eskaintzeko erosleari. Horrez gain, lokala bitan zatitu beharko dugu, alde batean salmenta eta bestean arropa egiteko. Beraz, gutxi gorabehera 120.000€ inguru beharko ditugu lokala gure beharretara jartzeko. Ondoren, denda jartzeko eta internet bidezko salmentarako lizentziak eskuratu beharko ditugu. Hasteko, lokalean erreforma batzuk egitea komeni da, eroso jarri eta eroslearentzat gustagarria izan dadin. Gure kasuan, bost sozio egongo gara, beraz irabazi handiak beharko ditugu denon artean banatzeko.

Irabazi handiena internet bidezko salmentan egingo dugula aurreikusten dugu, izan ere, gaur egun jendeak ohitura handia dauka internet bidezko erosketak egiteko. Dendan ere irabazi dezente izango ditugula uste dugu, herriko jendearengan arrakasta izango duela aurreikusten baitugu.